



IRAKASLEEN HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

HLEA

PROBA IDATZIA

- Proba honek lau ariketa ditu: 1) Ahozkoaren ulermena 2) Irakurmena 3) Idazlan luzea 4) Idazlan laburra
- Denbora: **3 ordu.**



A eredua

1. AHOZKOAREN ULERMENA

Orain grabazio bat entzungo duzu. Bi atal ditu, eta atal bakoitza bi aldiz entzungo duzu. Hasi aurretik galderak irakurtzeko denbora izango duzu. Gero, aukeratutako letrak erantzun-orrrian markatu beharko dituzu.

Iturria: Euskadi Irratia, Amarauna, Izar Arregi

Lehen atala

1. Esatariaren ustez, zer da normala?

- a) Gorrotoa sarritan sentitzea.
- b) Gurasoekin amorrua askatzea.
- c) Gurasoekiko amorrua sentitzea.
- d) Gorrotatzen jakitea.

2. Zer guraso mota deskribatzen dira?

- a) Malguak, autoritarioak eta demokratikoak.
- b) Bigunak, gogorrak eta malguak.
- c) Malguak, ez malguak eta zorrotzak.
- d) Demokratikoak eta asertiboak.

3. Zer da guraso asertiboa?

- a) Emozionalki orekatua dena.
- b) Dena ulertzen duena.
- c) Gauza materialetara mugatzen dena.
- d) Ulerkorra, baina mugak jartzen dituena.

4. Zergatik behar dituzte mugak gazteek?

- a) Bestela, ez dituztelako mugatzen emozioak.
- b) Bide zuzenetik joatea zaila delako.
- c) Ez dutelako ezagutzen bide zuzena.
- d) Oso erraz desbideratzen direlako.

5. Arauak bete egiten dira?

- a) Ez, nahiz eta adostuak izan.
- b) Ez, gazteek ez dute araurik nahi.
- c) Bai, gehien-gehienetan.
- d) Bai, gurasoek erabakiz gero.

Bigarren atala

6. Zer ezin da negoziatu?

- a) Gazteei eman beharrekoak.
- b) Errespetu-faltak.
- c) Bakoitzaren balioak.
- d) Dena negoziatu daiteke.

7. Zer egin ohi dugu errespetu faltan aurrean?

- a) Sarritan, gazteak mindu egiten ditugu.
- b) Internet kentzen diegu.
- c) Ondorioa berez aplikatzen da.
- d) Askotan, mendeku bila hasten gara.

8. Zer desberdintasun dago zigorraren eta ondorioaren artean?

- a) Zigorak mendeku-kutsua dakar.
- b) Ondorioa minarekin erlazionatzen dugu.
- c) Zigorra kastigua da, eta ondorioa saria.
- d) Ez dago desberdintasunik.

9. Zein dira ondorio naturalak?

- a) Geure kontura hartzen ditugunak.
- b) Bizitzan ikasten ez ditugunak.
- c) Konfiantzazkoak.
- d) Berez datozenak.

10. Tira-bira horietan, zer da garrantzitsua?

- a) Afektua zigor gisa ez erabiltzea.
- b) Ikasketetan laguntzea.
- c) Mezu positiboak ematea.
- d) Seme-alabak beren kabuz uztea.

2. IRAKURMENA

Hutsuneei dagozkien erantzunak bilatu azpiko aukeren artean eta markatu erantzun-orrian.

Voronoff

Txalo-zaparrada batekin amaitu zen Serge Voronoffen hitzaldia. 1923ko Zirujauen Nazioarteko Kongresuan, Londresen, mundu osoko puntako 700 zirujauk txalotu zuten Voronoffen lana: gizon zaharrak "gaztetzen" egindako lana. Tximinoen testikulu-zatiak gizon zaharren testikuluetan txertatzean zetzan Voronoffen metodoa. Eta sekulako arrakasta izaten ari zen.

Londresko kongresuan pelikula batzuen bidez erakutsi zuen nola egiten zituen ebakuntza haiek. Mahai ...**11** ... gaixoa eta tximino bat jartzen zituen, bata bestearen ondoan. Gizonari anestesia lokala ematen zion, eta orokorra tximinoari. Tximinoari testikulu bat ... **12** ... , sei zati txiki ebaki, eta gizonaren eskrotoan sartzen zituen.

Hiru gizezkoren kasuak erakutsi zituen, ebakuntzaren aurretik eta ondoren. 61, 74 eta 77 urteko gizonak ziren, eta ebakuntza egin aurretik zahartuta eta egoera ... **13** ... ikusten ziren. Ebakuntza egin eta hilabete batzuetara, ... **14** ..., osasuntsu eta indartsu ikusten ziren, zaldi-gainean ibiltzen, arraunean, eta abar. Voronoffek azaldu zuen ordurako tximinoen testikulu-transplanteak jaso zituzten 60 urtetik gorako 44 gizon kementsu eta osasuntsu zeudela.

Voronoff errusiarra zen jatorriz, baina 18 urterekin Frantziara emigratu eta han ikasi zuen medikuntza. Alexis Carrel izan zuen irakasle, eta ... **15** ... ikasi zituen transplanteak egiteko teknikak. Ez zen ... **16** ... irakaslea. Carrelek Nobel saria irabaziko zuen 1912an, ... **17** ..., odol-hodien eta organoen transplanteen teknikak garatzeagatik.

Ikasketak bukatu ondoren Egiptora joan zen Voronoff 1896an, eta han aritu zen zirujau, hamalau urtez. 1924an *Time* aldizkariari kontatuko zion moduan, hango eunukoek bere arreta ... **18** ... zuten: "Ez zuten ez bizarrik, ez biboterik,masailak erorita zituzten, eta gizenak ziren; zahar-itxura nabarmena zuten, oso gazte ... **19** Haietako bat 45 urterekin hil zen, eta bazirudien 90 zituela. Arren guruinek, ugalketaz gain, beste funtzio batzuk dituztela frogatzen zuen horrek; jariakin bat dute horretarako, eta, beste bat, muskuluei eta buruari indarra ematen diena". Behaketa horien ondorioz pentsatu zuen testikulu-transplanteak zahartzaroaren kontrako erremedio bat izan ... **20**

1910ean bueltatu zen Frantziara, eta zazpi urte geroago hasi zen lehen probak egiten animaliekin. "Ahari bat hartu nuen, 10-12 urtekoa, al baitarien ... **21** ... une batetik bestera hil zitekeena. Hain zegoen ahul, ezen altxatzean hankek dar-dar egiten zioten, eta bere gernalari ... **22** ... ere ez zen gai. Sei hilabeteko ahariko baten testikulu-zatiak sartu nizkion. Hilabete pare batean aldaketa etorri zen. Haren apatia, etsipen-itxura eta espresio tristea desagertu, eta bizitasuna eta espiritu oldarkorra agertu ziren. Aurretik ardiekiko zuen gogogabeziaren ... **23** ... kemena eta gogoa erakutsi zuen. Ardi batekin jarri genuen, eta ondorengo bat izateko gai ere izan zen."

Gizonen kasuan tximinoen testikuluak erabil zitzaizkion pentsatu zuen. Garai hartarako, ideia ausarta zen, tximinoak gizakiaren pare jartzen ... **24** Baina, areago , honela idatzi zuen behin Voronoffek: "Ausartzen naiz baieztatzen tximinoak gizonaren gainetik dagoela, bere gorputzaren ... **25** ..., bere organoen kalitatean, eta gizakion gehiengoari eragiten dioten akatsen gabezia". ... **26** ... azalpen hauek eman zituen: "Tximinoen testikuluak erabili nituen, gizakienak lortzeko oztopo handiak zeudelako, eta tximinoen guruiak zirelako bakarrak, zehazki simio antropoideenak, giza ehunetan jatorrizko kondizio ... **27** ... aurkituko zituztenak."

1920an egin zuen lehen transplante ofiziala gizon batekin. 45 urte zituen, eta testikuluak erazuta, tuberkulosoak zirelako. ... **28** ... ez zuen bizarrik. "Transplantea egin ondoren bizarra mozten hasi behar izan zuen; 20 urte zeramatzan halakorik egin gabe". Handik gutxira 74 urteko beste gizon bati egin zion ebakuntza. "Zortzi hilabeteren ... **29** ... bueltatu zen. Nire laguntzailea eta biok ... **30** ... gelditu ginen haren lodiera erdira jaitsi zela ikustean. Gazte-itxura zuen, mugimenduetan indarra nabari zitzaion. Gantza desagertu zen, muskulua irmo zituen, gorputza zuzendu zitzaion, eta buruan ilea zuen lehen batere ez zuen lekuan ere. Suitzako mendiak igotzen ibilia zen..."

A eredua

1930eko hamarkadaren hasierarako 500 gizoni baino ... **31** ... egin zitzairen ebakuntza Frantzian, eta beste milaka gizoni mundu osoan, Voronoffen ... **32** Tximino-testikuluen eskariari erantzuteko, bere haztegia eraiki zuen Italian Voronoffek. Arrakasta hari esker, dirutza handia egin zuen, eta Parisko hotel garestienetako baten lehenengo pisu osoa hartu zuen, zerbitzari mordo batekin.

Baina urteak aurrera joan ... **33** ..., Voronoffen arrakasta txikitzen hasi zen, eta metodoarekin kritikoak zirenak indarra hartuz joan ziren. Komunitate zientifikoak, pixkanaka, frogatu zuen metodo hark ez zuela ... **34** ... halako emaitzarik ematen. Ikusitako emaitza positiboen atzean zegoen gauza ... **35** ... plazebo efektua zen. Kenneth Walker doktore britainiarrak esan zuen moduan, Voronoffena "ez da sorginen eta aztien metodoak baino hobea".

Voronoffen karrera eta izen ona lurpean gelditu ziren. 1951n hil zen, eta egunkari gutxik egin zioten nekrologiaren bat. Eta, egin ziotenek, haren sinismenengatik barregarri uzteko izan zen, beti halaxe tratatu izan balute bezala. •

Egoitz Etxebeste, Elhuyar aldizkaria (moldatua)

11.- a) banatan b) bakoitzean c) batzuetan d) ondoan	12.- a) ostu b) jarri c) erauzi d) erantsi	13.- a) ezin hobean b) zaharkituan c) kaxkarrean d) hainbestean	14.- a) beraz b) noski c) izan ere d) berriz
15.- a) hartatik b) hura zela eta c) hagatik d) harengandik	16.- a) edonolako b) ezjakina c) benetako d) ganorazko	17.- a) batez ere b) hain zuzen ere c) jakina d) hala ere	18.- a) piztu b) hartu c) deitu d) jarraitu
19.- a) izan ezik b) balira c) izanda ere d) emateagatik	20.- a) zela b) zitezkeela c) zezaketela d) zuela	21.- a) erruz b) poderioz c) esanean d) pentsamenduan	22.- a) eusteko b) mantentzeko c) bultzatzeko d) garraiatzeko
23.- a) ezagatik b) paretik c) itxura d) ordez	24.- a) bazituen ere b) zituen arren c) bazituen d) baitzituen	25.- a) sendotasunean b) eskasian c) ahulezian d) itsustasunean	26.- a) Inola b) Halakoan c) Inoiz ez d) Gerora
27.- a) txarrak b) berak c) dezente d) gehiago	28.- a) Hemendik aurrera b) Areago c) Handik d) Harrezkero	29.- a) gainean b) buruan c) aitzinean d) buruz	30.- a) zur eta lur b) ezin egonda c) larri d) lur jota
31.- a) lehen b) gutxiagori c) dezenteri d) gehiagori	32.- a) metodoarekin b) aginduekin c) trebeziarekin d) tximinoekin	33.- a) ahala b) baziren ere c) eta gero d) bezain laster	34.- a) benetan b) inondik c) askotan d) deusetan
35.- a) bikaina b) bakarra c) harrigarria d) pentsaezina			

NAN zkia										Kodea						
---------------------------	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--------------	--	--	--	--	--	--

3. IDAZLAN LUZEA

Ondoko bi gaien artean bat aukeratu eta gutxienez 200 hitzeko idazlana osatu behar duzu.

Nora doa osasungintza? Osasungintza publikoan murrizketak egingo dituzte. Botiken ehuneko handiagoa ordaindu beharko da. Eta zenbait zerbitzu ere egin beharko dugu agian. Idatzi artikulua herriko aldizkarian. **Hizpide hauek garatu behar dituzu:**

- Zerbitzu horren garrantzia aipatu
- Neurriak kritikatu: onetsi/gaitzetsi
- Azken gogoetak

Garraioa, nolakoa? Gure autoek kutsadura handia sortzen dute. Horrez gain, gero eta garestiagoa da erregaia erostea. Bideragarri ote da sistema hau? **Hizpide hauek garatu behar dituzu:**

- Auto bidezko garraioaren arazoak
- Alternatibak: garraio publikoa, auto elektrikoa...
- Azken gogoetak

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

10.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

20.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

A eredua

30.....

40.....

50.....

60.....

ERANTZUN ZUZENAK**HE1: Ahozkoaren Ulermena (Gaztetxoen diziplina)**

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
C	A	D	B	A	B	D	A	D	A

HE1: Irakurmena (Voronoff)

11	12	13	14	15	16	17	18	19	20
A	C	C	D	D	A	B	A	C	B

21	22	23	24	25	26	27	28	29	30
C	A	D	D	A	D	B	D	B	A

31	32	33	34	35
D	A	A	A	B